

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2024 Foru Dekretua ekainaren 18koa. Onespenez ematea Gazteriaren Foru Erakundeak sustaturiko ikastetxeen programei aplikatu beharreko prezio publikoak eguneratzeari

Tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Foru Gobernu Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

Azaroaren 5eko Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2019 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako ikastetxeen programei aplikatu zaizkien prezio publikoak eta araudiak onartu zuen. Dekretu horren eranskinaren hirugarren artikuluan, aplikatu beharreko prezio publikoak jasotzen dira.

Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2024ko maiatzaren 31an, arau horren eranskinean jasotako prezio publikoak aldatzea proposatu zuen.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Horregatik guztiatik, Kultura eta Kiroleko diputatuak eta bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak batera proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako ikastetxeen programei aplikatu dakizkiekeen prezio publikoak eguneratzea. Prezio publikoak eta Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako ikastetxeen programei aplikatu dakizkiekeen arauak arautzen dituen 48/2019 Foru Dekretuaren eranskinaren 3. artikuluan daude jasota prezio publiko horiek. Hona nola geratzen den idatzita:

3. artikulua. Inskripzio-kuotak

PROGRAMA	IRAUPENA	BANAKAKO KUOTA
Ikasgelak / Arabazblai	2 egun	60,00 €
Ecoschool / This is not an english class	4 egun	95,00 €

Bigarrena. Foru dekretu hau 2024-2025 ikasturtetik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena. Honako ebazpen hau ALHAOan argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAECHEA

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN